


LANDER ZURUTUZA

LEZOARRAK ITSASOAN





Antolatzailea: Lezoko Kultur Batzordea

Laguntzailea: Lezoko Unibertsitateko Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia

LEZOARRAK ITSASOAN

Hitzak eta marrazkiak: Lander Zurutuza


I. HASTAPENAK

SASOI BATEAN, LEZOKO BALENARRANTZALE TREBE ETA KORSARI AUSARTEN GARAIA BAINO LEHEN, FADURAK ZIREN NAGUSI JAIZKIBELPEKO IBAI ERTZETAN. HORRELA, PASAIAKO ITSASADARREAN KONNAHI AZALTZEN ZIREN LUR MUTURRAK MAREA BEHERETAN. ETA SEGURASKI, BAZTER HAVETAN, LEZO ALDEAN, LANEAN ARIKO ZEN ARARRANTZALE BAKARTIREN BAT EDO BESTE.



II. LEZOKO KANALA


DENBORAREKIN, ORDEA, FADUREN INGURUETAN UGARITZEN JOAN ZIREN
BIZTANLEAK. ETA LEZO, GURE HERRIA, ITXURA HARTZEN HASI ZEN MOTA
GUZTIAK UNTZIEN JOAN-ETORRIAREKIN BATERA, KRESAL USAINAREN ARTEAN.




ERA HORRETAN, ERROTA, BASEARI ETA BESTELAKOEZ GAIN SORTZEN JOAN ZIREN
URBAZTERRETAN UNTZIGINTZAK ETA HERRIKO KAIA BERA ERE.



SONA HANDIENENKO LEZOAR UNTZIGINTZA, HOTS, PORT DE LA BORDA EDO
BORDALABORDAKO ERRET UNTZIGINTZA, XVI. MENDEAN ERAIKI ZUTEN
KOSTABURUKO ERREKA PORTUKO LOHI ARTEAN GALTZEN DEN LEKUTIK
GERTU. BERTAN, GALEOI ETA BESTELAKO ITSASUNTZI ASKO ETA ASKO
EGIN ZIREN.



UNTZIGINTZAREN ALDE BATEAN OHOL IKUSGARRIAK IKUS ZITEZKEEN PILATURIK, BES-
TEAN ALKITRANEZ BETETAKO KUPELAK, HAN-HEMENKA BURDINEZKO ILTZE EDO
XAFLAK ETA MUTUR BATETIK BESTERAINO AMAIRIK GABEKO SOKA LUZEAK.




BORDALABORDAN GUZTIAK ZUEN URRUNEKO ITSASOEN USAINA: KONPONKETA BILA
ZETORREN UNTZIAK, BESO EDO BEGI BAKARREKO MARINEL MOZKORTIAK,...




BESTALDE, LEZOKO KALE NAGUSIAREN BEHEKALDEAN, ZABARRE ETXETIK AVRRERA, KAIA EDO LEHORRERALEKUA ZEGOEN. MENDEZ MENDE, EGUNEZ EGUN, GOIZ PARTEAN LEZOAR ARRANTZALEAK BERTAKO HONDARTZATXOTIK IRTEN IZAN DIRA ARRAIN BILA.

HERRIKO KONTSEJUA, 1626. URTEAN, 42 ERREAL GASTATU ZITVEN KAIAREN KONPONKETAN.




III. ARRANTZALEAK

LEZON FAMILIA FRANKO BIZI IZAN DA ITSASERTZEKO ARRANTZATIK. IHARDUERA HONI
ESKER, ESKASIA GARAIETAN ERE, GOSEARI AURRE EGIN IZAN ZAID. ITSASO EMAN-
KORRAK, ORDEA, ETENIK GABE JASO IZAN DU BERE ONDASUNEN PREZIO GARES-
TIA: HERIOTZA.



BETI USTĖGABEKO ENBATAREN BILDUR BIZI ZIREN GIZON UMIL ETA SUFRITU HAIK
LEZOKO GURUTZE SANTUAREN GERIZPEAN AURKITU ZUTEN BABESA.



1817. URTEKO EKAINAREN ZIEAN, OHITURARI EUTSIZ, LEZOKO ARANTZALEAK KAITIK IRTEN
ZIREN EGUNEROKO LAN GOGORRARI AURRE EGIN ASMOZ. EGUN HARTAN, ORDEA, ZAZPI
LAGUN, HAMAHIRU URTEKO MUTIKO BAT TARTEAN, EZ ZIREN BUELTA ITZULIKO.
EKAITZ IKARAGARRI BATEK BEREN TXALUPA HENDAIATIK HURBIL HONDORATU ONDOREN
HAIZE BOLADA INDARTSUEAN ARTEAN GALDU ZIREN BETIKO.
SEI HILABETE LEHENAGO, ABENDUAN, LEZOKO TXALUPA BATEKO BESTE BEDERATZI
LAGUN DESAGERTU ZIREN HONDARRIBIKO BARRAN.




20/10/77

NAPOLEONEN OKUPAZIOAREN URTE ZAILETAN, BESTALDE, 1808. ETIK AURRERA, LEZOKO ARRANTZALEAK TROPA ESPAINIAR ETA INGELESEN LAGUNTZAN ARITU ZIREN, FRANTSESEN KALTETAN. BEREN BOST TXALUPETAN JANARI, ARTILERIA, MUNIZIO ETA BESTELAKO GERRA-HORNIZIOAK GARRAIATU ZITUZTEN DONOSTIA, IRUN ETA HONDARRIBIRA.




HORRETAZ GAIN, LEZOKO TXALUPETAKO HAMAR BAT LAGUNEK DONOSTIAKO SETIOAN PARTE HARTU ZUTEN, BERTAKO LANTXA KANOILARIETAN.



IV. URRUNEKO ARRANTZA

XVIII. MENDERARTE LEZOARRAK MAKILADA ETA BALEAREN ARRANTZARA JOAN IZAN DIRA IPARREKO ITSASO HOTZETARA, TERRANOVA ETA NORVEGA ALDERA.



NEGUA BUKATU ORDUKO IRTETEN ZIREN, BETIERE ITSAS MAMUEN BELDUR, UNTZIKO BARRIKAK LUMERA EDO MAKILAOZ ONDO BETE ETA GERO UDAZKENAREKIN ITZULTZEKO.



1570. URTEAN EKAITZ BATEK JUANES DE LEZO KAPITAINAREN UNTZIA TXIKITU ZUEN TERRANOVAN. MARINEL LEZOARRAK AHAL ZEN MODUAN LEHORRERATU ZIREN ELURRA ETA JELA ARTERA. BUSTIRIK ETA HOTZAK IA AKATURIK ZEUDELA SU BAT PIZTU ZUTEN URBATERREAN AURKITUTAKO POLBORA BARRIKATXO BATI ESKER. HORRELA, ARROPAK LEHORTU ORDUKO, OINEZ ABIATU ZIREN GERTUEN ZEGOEN PORTURANTZ. HARA IRITSITAKOAN GIPUZKOAKO UNTZI BAT EGOKITU ZITZAIEN ETA BERTAN ITZULI ZIREN LEZORA.



V. MERKATARITZA BIDEAK


MENDEETAN ZEHAR LEZOKO KAPITAIN, PILOTU ETA BESTELAKO MARINEL FRANKO BIZI IZAN DA ESPAINIA ETA AMERIKAREN ARTEKO MERKATARITZATIK. BEREN BIDAETAN ATLANTIKOZ BESTALDEKO LA HABANA, BUENOS AIRES, VERACRUZ ETA CARACAS BEZALAKO ITSAS PORTUEKIN LOTU IZAN DITUZTE HEGOALDEKO SEVILLA ETA CADIZ, ETA PASAIA BERA ERE.




ETENGABEAN ITSASOA ZEHARKATZEAK, ORDEA, EZUSTE UGARI EKARRI ZION LEZOKO MARINE-
LERIARI. ESATE BATERAKO, 1658. URTEAN HIRU LEZOAR GALDU ZIREN ITSASOAN, "SAN
SEBASTIAN" IZENEKO UNTZIAN.

ZERTKOBAIT BERANDUGO, 1662. URTEKO UDARAN, BESTE LAU HERRITAR GALDU ZIREN
CADIZERA ZIHDAZELARIK.

BESTALDE, 1715. URTEAN FLOTA OSO BAT GALDU ZEN FLORIDAKO KOSTALDEAN. BER-
TAKO GALEOJETAN BI LEZOAR ITO ZIREN.



ITSASOAN ZEBILTZAN LEZOAR GUZTIAK, ORDEA, EZ ZIREN MARINELAK. HORRELA, ELIZGIZON BAT, LEZOKO SAN JOAN BATAIATZAILEAREN PARROKIAKO PRESBITER ETA BENEFIZIATUA, HOTS, MARTIN DE YBARGOEN JAUNA, "SANTO DOMINGO" UNTZIKO KAPERUA ZELA LA HABANA HIRIAN HIL ZEN 1747. URTEAN.



VI. ESPAINIAKO «ARMADA»

«ARMADA» ZEN, BEHAR BADA, ITSAS IHARDUERA GUZTIEN ARTEAN GORROTATUENA, ASKOTAN HERIOTZA EDO ATZERRIKO PRESONDEGI ILUNEN BAT ZEKARRENA NEKE GUZTIEN SARI BAKARTZAT. HALERE, XVI, XVII ETA XVIII. MENDEETAN ESPAINIAKO «ARMADA»N ARITU ZIRENEN ZERREDA NAHIKO LUZEA DA LEZON.

HORRELA, 1588. URTEAN FELIPE II.AREN «ARMADA GARAITEZIN» OSPETSUA LISBOA-TIK ABIATU ZENEAN INGALATERRAKO KANALERA, BERE HONDAMENERA, GUTXIENEZ LEZOKO ZORTZI MARINEL ZIREN TARTEAN. HORIETATIK SEIK BIZIA GALDU ZUTEN BERTAKO UNTZIETAN.



GEHIENETAN PRESONDEGIA SUFRIMENDUEN ALFERRIKAKO SEGIDA ZEN, BIZITZAREN AZKEN OSTIKADA. ESATE BATERAKO, JUANES DE VIDARTE, ANDREONE ETXEKO JAUNA, HOLANDAN HIL ZEN PRESO 1641. URTEAN; ETA SANTIAGO DE GARAIKOECHEA PILOTUA FLANDESEN 1642. EAN.

XVIII. MENDEAN, BESTALDE, LEZOAR ASKO HIL ZEN "ARMADA"TIK PASA ONDOREN INGALATERRAKO PRESONDEGIETAN: PLYMOUTH-EN,...

BATZUTAN, ORDEA, PRESONDEGIA ASKATASUNAREN ATARIA ZEN. JUAN BAPTISTA DE OLASO ARTILARIA ETA JOSEPH FELIX DE MARTIERENA INGALATERRAKO PRESONDEGI BATETIK ITZULI ZIREN LEZORA 1782. URTEAN.



2017/12/12

VII. KORTSARIAK


LEZOKO KORTSARIEK BATIPAT FRANTZIA, INGALATERRA ETA HOLANDAKO MERKATALUNTZIAK ERASOTUZ IRAGAN ZUTEN BEREN URREZKO AROA, HOTS, XVII. MENDE ERDIALDEA.



LEZOKO TREBE HAVEK ESPERIENTZIA HANDIKO ITSASGIZONAK ZIREN, BALEAREN ARRANTZAN GOGORTUAK GEHIENAK.



1651. URTEKO UDARAN FRANCISCO DE KAREAGA KORTSARIUNTZI BATEAN ITSASORATU ZEN, HARRAPAKIN ONA LORTU ASMOZ. LEZO UZTERAKOAN AITAREN EGIN ZVEN LEZOANDIA AURREKO PARROKI GARAIARI BEGIRADA BOTEAZ.




SANTAKRUTZ EGUNEAN JAKIN ZENEZ, HARENAK EGIN ZVEN. BERE LAGUNEK ZIOTEN ETSIAK HIL ZUELA ERASOALDI GOGOR BATEAN.




VIII. KANALEKO TXALUPARIAK


LEZOKO EMAKUME TXALUPARIEI BURUZKO LEHEN ALBISTEAK ZAHARRAK DIRA. 1630. URTEAN, ESATE BATERAKO, HERRIKO KONTSEJUAK 12 ERREAL ORDAINDU ZIZKION HAUETAKO BATI, GARIZUMAN PREDIKATZERA ETORRITAKO APEZA ETA HONEN LAGUNTZAILEA HERRERATIK LEZORA EKARRI ETA BUELTAN ERAMATEAGATIK.



LEZOTIK HERRERARAKO BIDEA ZEHARKATVENA BAZEN, BESTE UNTZIRALEK VETARA ERE JOATEN ZIREN GURE HERRIKO TXALUPARIAK.





XIX. MENDEAN, VICTOR HUGO LEZORA ETORRI AURRETIK, TXALUPARI BAKOITZAK BERE ALDERDI MUGATUA ZUEN URBATZERREAN, GAINDITU EZIN ZEZAKEENA. HALERE, BIDAIAIREN BAT INGURATZEAN DENAK ALGARAKA HASTEN ZIREN BEREN UNTZIRA ERAKARRI NAHIEAN. ISKANBILAK ETA BIDAIAIREN TXUNDIDURA OHIZKOAK ZIREN.




IX. ZENBAIT ITSASGIZON

JAIMES DE ZAMORA. PILOTU NAGUSIA
ESPAINIAKO "ARMADA" N. FLORIDA,
FLANDES, INGALATERRA, IRLANDA,
ESKOZIA, NORUEGA ETA MEDITERRA-
NIDKO KOSTAK AZTERTU ONDOREN
"MAREAS DERROTAS" IZENeko TRA-
TATUA IDATZI ZUEN, FELIPE II. AREN
GARAIAN.



JOANOT DE VILLAVICIOSA ZAHARRA.
KAPITAINA ETA ALMIRANTEA. FLORIDA,
ORAN, CEUTA ETA TANGER-EN BURRUKATU
ZUEN. 1582. URTEAN HIL ZEN SAN MIGUEL-
GO ITSAS BATAILAN, LAROGEI URTETIK
GORAKOA ZELA.



DOMINGO DE ARIZPE. GALEDI BATEN
KAPITAINA ETA PILOTU NAGUSIA "AR-
MADA" N. 1587. URTEAN HIL ZEN FRAN-
CIS DRAKE KORTSARI INGELESAREN
ERASOAN, CADIZEKO BADIAN.




LEON DE IRIBERRI. KORTSARI IZANA.
AMERIKETAN IDILIA PASCUAL DE ATOLHA-
REN UNTZIETAN. APAIZIARZA INGURUAN
LURRAK ZITUEN. BERE EMAZTEA, MA-
RIANA DE ARRILLAGA, LEZOKO TABER-
NARIA ZEN. ITSASOAN GALDU ZEN
1662. EAN, CADIZERAKO BIDEAN.



FRANCISCO DE ECHEVESTE. KORTSARI
BEZALA "VEEDOR" KARGUA IZAN ZUEN,
ETA BALENARRANTZALE BEZALA KON-
DESTABLEARENA. LEZON HIL ZEN
1733. URTEAN.



JORGE DE ECHEVERRIA. PILOTU ETA
KAPITAINA. UNTZI-KOMANDANTE ETA
KORONELA "ARMADA"KO "XAVIER"
IZENEO UNTZIAN. TOULON-60 PORTU
FRANTSESEAN HIL ZEN 1743. URTEAN.



SANTOS DE ANSORENA. ARRANTZALEA.
LAU TONAKO TXALUPA BATEN PATROIA
XIX. MENDEAN.



X. GAINBEHERA

GAUR, 1991. URTEAN, LEZOKO ITSASGIZONEN ITZALA PAPER ZAHARRETAN GAL-
TZEN DA. AZKEN KORTSARIA HIL ZEN, UNTZIGINTZAK ITXI ZIREN ETA KRESAL
USAINA BERA ERE BETIRAKO URRUNDU DA GURE KALEE TATIK. CRAINDIK
BADAGO, BAI, PASAIAKO UNTZIGINTZATIK BIZI DENIK, PACIFICO EDO CA-
RIBE-N ARRANTZA EGITEN DUENIK. LEZOREN ITSAS TRADIZIOA, ORDEA,
ORTZEMUGAN EZKUTATZERA DOAN EGUZKIA BAINO EZ DA.

